



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

## **Nekazaritzako sailak 119.000 euro baino gehiagotan kalkulau ditu martiaren 9an Karrantzan izandako suteek sortutako kalteak**

Bilbon, 2014ko apirilaren 10ean.

Irene Pardo Nekazaritza Foru Diputatuak 119.000 eurotan kalkulau ditu joan dan martiaren 9an Karrantzan izan ziran eta herri horretan 200 hektarea inguru hartu ebezan suteek eragindako kalteak. Hautemandako 14 fokuak amatetako suhiltzaileen 8 erreten mobilizau behar izan ziran, bolondresak, teknikariak eta Basalan foru enpresako beharginak barru, eta baita helikoptero bi be, bat Ertzaintzarena eta bestea Ingurumen Ministerioarena, Asturiasetik etorritakoa. Nekazaritza Saileko arduraduna oposizino taldeek eskatuta agertu da batzordearen aurrean, gertakari horri eta beste gai batzuei buruzko azalpenak emoteko.

Irene Pardo bat etorri da Bizkaiko Talde Popularreko eta EH Bilduko bozeroaleek esandakoagaz, martiaren 9an Enkarterriko herrian izandako suteak “gurata egin izan zirala emoten dauela”, eta Ertzaintza gertatutakoa ikertzen ari dala jakinarazo dau. Ganera, egun haretan egindako jarduketeak, basoetako suteak itzaltzeko OCELA protokoloa bete ebala be esan dau, Asier Vega EH Bilduko ordezkariak egin dituan kritikei erantzunez. Asier Vegak “segurtasuneko protokoloa ez zala bete” eta sutearen kontrako burrukan “akats teknikoak, giza baliabideen falta eta erakundeen arteko koordinazino falta” egon zirala kritikau dau.

Foru diputatuak adierazo dauenez, egun beroa izan zan, hego haizea egon zan, eta beste sute txikiagoak be egon ziran Abadiñon, Mañarian, Sopuertan eta Trapagan. Azken kasu horreetan, zazkarak kontrol barik erretzearen ondorioz sortu ziran suteak.

Arturo Aldecoa PP-ko, gai horri buruzko informazinoa emon daian diputatuaren agerraldia eskatu eban taldeko, batzordekideak, gertakari “kezka garria eta arriskutsua” dala esan dau, eta, ganera, babestutako gunen bi kaltetu dituala, Ordunteko mendizerrea eta Armañoneko Parke Naturala.

### **ABEREA SOLTE ZUGAZTIETAN**

Nekazaritzako batzordeak, batzordekide popularraren ekimenez, Zugaztieta inguruan, Trapagako udalerrian, “libre” dagozan abereen arazoa be landu dau. Aldecoaren berbetan, “inguru horretan abereak libre ibilteak arrisku bi ditu: trafiko istripuak alde batetik, eta higiene publikoa bestetik, gura daben moduan, leku guztietatik, ibiltzen diran animalien kakak dirala eta”. Holan, nekazaritzako sailari neurriak hartzeko eskatu deutso “antxinatik datorren arazo horri bukaerea emoteko”.

Bere erantzunean, Irene Pardok, Foru Aldundiak hartutako hainbat neurri aitatu ditu. Horreen artean, abereei eusteko itxidurak eta azpiegiturak eta igarobide kanadarrak eregiteko inbertsinoak azpimarratu ditu. Behar horreetara 16.000 euro bideratu dira. “Solte dagozan animaliak batzea eta jaubeak identifiketea udalei jagoken egin beharra” dala gogoratu ostean,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

“abeltzainen jarrera ezinbestekoa dala arazo hori konpontzeko” azpimarratu dau foru diputatuak. “Arduragaz erlazionautako kontua da”, gehitu dau.

Asier Vega EH Bilduko bozeroaleak, bere taldeak, Zugaztieta inguruan solte dagozan abereen arazoari aurre egin ahal izateko abeltzainen, herritarren eta erakundeen parte hartzea eukiko leuken alkarrizketarako mahaia eratzeko aurkeztu eban proposamena gogoratu dau. Edorta Rodrigo EAJ-PNV-ko batzordekideak esan dau “alkarregaz bizitzen jakin behar dala, Zugaztieta ez dalako aisiarako eta denporea pasetako lekua bakarrik, inguru horretan nekazaritza eta abeltzaintza jarduera garrantzitsua dagoala”. Azpimarratu dauenez, “solte dabilzan animalien presentzia asko murriztu da, Aldundiak azken urteetan hartu dituan neurriei esker”.

## LUR BANKUA

Beste alde batetik, batzordeak, Bizkaiko Udalek Lur Bankuan emondako laguntzea landu dau. Batzarretako talde guztiek oso modu positiboan balorau dabe banku horren existentzia eta funtzionamentua.

Irene Pardok, bere agerraldiaz baliauz, Nekazaritzako Sailak, une honetan Bizkaian jarduten daben Landa Garapeneko sei Alkarteei alkarlanean aritzeko proposamena egin deustela iragarri dau, Nekazaritzarako Zoruaren Funtsaren edo Foru Lur Bankuaren gaian. Lea-Artibai, Urkiola, Gorbeialde, Urremendi, Jata-Ondo eta Enkarterrialde alkarteei egindako proposamenaren helburua, lur-zatien eskaintzea eskualde guztietan banatzea da. Holan, Nekazaritzako Foru Sailak alkarte horreekaz alkarlanean jarduteko beste bide bat zabaldu dau. Alkarte horreekaz lehendik be egiten dau lan, euren mantentze, funtzionamentu eta kudeaketa lanen parte bat ordainduz eta euren landa garapen proiektuak bultzatuz.

Ganera, gogoratu dau bere Sailak 85 hektarea eskiniko dituala geografiaren ikuspegitik oso banatuta dagozan 28 lotetan, aurton gauzatuko dan fase barrian. Gatican eta Mungian Bizkaiko bigarren Agrogunea martxan jarrea azpimarratu behar da. Horrez gain, norbanakoek Arrigorriagan, Urduñan, Bilbon eta Zeanurin lurak laga ditue, eta gauza bera egin dabe Lezamako eta Loiuko udalek, foru enpresa publikoek eta Aldundiak berak lagatakoek aparte.

2012. eta 2013. urteen artean, Bizkaiko Foru Aldundiak 700.000 euro bideratu ebazan Bizkaiko landa inguruneen garapena bultzatuko daben azpiegituretara. Laguntza horreekaz, erakundeak alkarteen eta norbanakoen 60 proiektu bultzatu ebazan.

## ZURBALTZ KANTABRIARREKO BASOA MENDEXAN

Bildu taldeak barriro eroan dau Batzar Nagusietako saio batera Mendexako Vista Alegre inguruan dagoan eta “balio ekologiko handia” daukan zurbaltz kantabriarreko basoak azken urteetan desagertzen joan izanari buruzko arazoa. Baso horren egoerea SOS Karraspio plataformak salatu eban.

Bere erantzunean, nekazaritzako sailak SOS Karraspio alkarreak joan dan urtarrilaren 21ean aurkeztutako idazkiaren bitartez izan dauela horren barri adierazo dau Irene Pardok. Hori ikusita, Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak egoerea aztertu eta txostena idatzi dau. “Txosten horrek erakusten dauenez, egon daitekezan arau hausteak orain hiru urte baino gehiago



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

egindakoak dira, hesiz itxitako lur pribaduan. Hori dala eta, egon daitekean delitu ekologikoa une honetan preskribiduta egongo litzateke”, esan dau Pardok.

Asier Vegak, EH Bildu taldeak batzordean daukan bozeroaleak, foru erakundeak “Vista Alegreko zurbaltz kantabriarreko basoaren kasuan beste alde batera begiratu dauela” salatu dau, eta “inguruan espezie autoktono berbera landatzen dala” egiaztetako hartu beharreko neurriak hartu daizala eskatu deutso Aldundiari.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Agricultura cifra en más de 119.000 euros los daños causados por los incendios en Karrantza del 9 de marzo**

Bilbao, a 10 de abril de 2014.

La Diputada foral de Agricultura, Irene Pardo, ha cifrado en 119.000 euros el valor de los daños ocasionados por los incendios ocurridos en Karrantza el pasado día 9 de marzo, que afectaron a cerca de 200 hectáreas de terreno en dicha localidad. La extinción de los 14 focos detectados obligó a movilizar un total de 8 retenes de bomberos, incluidos voluntarios, técnicos y personal de la empresa foral Basalan, así como dos helicópteros, uno de la Ertzaintza y otro del Ministerio de Medio Ambiente, procedente de Asturias. La titular del Departamento ha comparecido hoy en la comisión de Agricultura a petición de los grupos de la oposición para ofrecer explicaciones sobre este suceso, así como de otros asuntos.

Irene Pardo ha compartido las sospechas, expresadas por los portavoces de los grupos Popular Vizcaíno y EH Bildu, de que los incendios ocurridos el 9 de marzo en el municipio encartado “apuntan a que fueron intencionados” y ha informado que el caso está siendo investigado por la Ertzaintza. Asimismo, ha asegurado que la actuación llevada a cabo aquel día cumplió con el protocolo OCELA para la extinción de incendios forestales, en respuesta a las críticas del representante de EH Bildu, Asier Vega, que ha denunciado “el incumplimiento del protocolo de seguridad”, así como “fallos técnicos, falta de medios humanos y descoordinación interinstitucional” en las labores contra el fuego.

La diputada foral ha informado que aquel día fue una jornada calurosa y con viento sur, y que también se registraron incendios, de menor proporción, en las localidades de Abadiño, Mañaria, Sopena y Trapagaran, atribuidos en estos casos a la quema incontrolada de rastrojos.

El apoderado del PP Arturo Aldecoa, del que partió la solicitud de comparecencia de la diputada para informar sobre este tema, ha manifestado que se trata de un suceso “preocupante y peligroso”, que ha afectado, además, a dos zonas protegidas como son la sierra de Ordunte y el Parque Natural de Armañón.

### **GANADO SUELTO EN LA ARBOLEDA**

La comisión de Agricultura ha tratado, a iniciativa también del apoderado popular, la presencia de ganado “libre” en el entorno de La Arboleda, dentro del término municipal de Trapagaran. En opinión de Aldecoa, “la existencia de ganado suelto en la zona supone un doble riesgo: de accidentes de tráfico, por un lado, y de higiene pública, por otro, provocado por las deposiciones de los animales que andan como Pedro por su casa”. En este sentido, ha urgido al departamento a adoptar medidas “para acabar con este problema, que viene de lejos”.

En su respuesta, Irene Pardo ha enumerado una serie de medidas adoptadas por la institución foral entre las que se encuentran inversiones para la construcción de cierres e infraestructuras para la contención del ganado, así como pasos canadienses, a los que se han destinado 16.000 euros. Tras recordar que “corresponde a los ayuntamientos la recogida de animales sueltos y la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

identificación de sus propietarios”, la diputada foral ha destacado que “la actitud de los ganaderos es clave para solucionar este problema”. “Se trata de un asunto de responsabilidad”, ha añadido.

El juntero de EH Bildu, Asier Vega, ha recordado la propuesta de su grupo de crear una mesa de interlocución con la participación de ganaderos, vecinos e instituciones para abordar la situación del ganado suelto en el entorno de La Arboleda. Por su parte, el apoderado de EAJ-PNV Edorta Rodrigo ha intervenido para apuntar que “hay que saber convivir ya que La Arboleda no es solo una zona de ocio y esparcimiento, sino también de actividad agrícola y ganadera”. También ha subrayado que “la presencia de reses sueltas ha disminuido mucho gracias a las medidas adoptadas por la Diputación en los últimos años”.

#### BANCO DE TIERRAS

La comisión ha tratado, por otro lado, la colaboración de los ayuntamientos de Bizkaia en el Banco de Tierras, cuya existencia y funcionamiento han sido valoradas positivamente por todos los grupos junteros.

Irene Pardo ha aprovechado su comparecencia para anunciar que el Departamento de Agricultura ha propuesto a las seis Asociaciones de Desarrollo Rural que actualmente operan en Bizkaia colaborar en la intermediación de suelo para el Fondo de Suelo Agrario o Banco de Tierras foral. La propuesta realizada a los colectivos de Lea-Artibai, Urkiola, Gorbeialde, Urremendi, Jata-Ondo y Enkarterrialde tiene como objetivo repartir la oferta de parcelas por todas las comarcas. De este modo, el Departamento foral de Agricultura abre una línea más de colaboración con estas asociaciones, con las que contribuye en el gasto de mantenimiento, funcionamiento y gestión de las mismas, además de apoyar sus proyectos de desarrollo rural.

Asimismo, ha informado que su Departamento ofertará 85 hectáreas en 28 lotes muy repartidos geográficamente en una nueva fase que se materializará este año. Destaca la puesta en marcha del segundo Agrogune de Bizkaia en los municipios de Gatika y Mungia y la cesión de terrenos por parte de particulares de Arrigorriaga, Urduña, Bilbao y Zeanuri, y de dos Ayuntamientos, Lezama y Loiu, además de empresas públicas forales y la Diputación.

Entre 2012 y 2013, la Diputación Foral de Bizkaia destinó 700.000 euros al apoyo de infraestructuras que favorezcan el desarrollo de las zonas rurales de Bizkaia. Con estas ayudas, la institución colaboró en 60 proyectos de asociaciones y particulares.

#### ENCINAR CANTÁBRICO EN MENDEXA

El grupo Bildu ha llevado una vez más a una sesión de Juntas Generales la progresiva desaparición en los últimos años de un bosque de encinar cantábrico de "gran valor ecológico" localizado en la zona de Vista Alegre de Mendexa, cuya situación ha sido denunciada por la Plataforma SOS Karraspio.

En su respuesta, Irene Pardo ha afirmado que su departamento ha tenido conocimiento del caso a raíz, precisamente, de un escrito presentado por SOS Karraspio el pasado día 21 de enero, y que ha dado lugar a una inspección y el correspondiente informe del Servicio de Montes de la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Diputación foral. “Según este informe, las posibles infracciones sucedieron dentro de un terreno privado y vallado hace más de tres años, por lo que el hipotético delito ecológico estaría ya prescrito”, ha informado Pardo.

El portavoz de EH Bildu en la comisión, Asier Vega, ha acusado a la institución foral de “mirar para otro lado en el caso de la destrucción del encinar cantábrico de Vista Alegre” y ha solicitado que adopte medidas para proceder a la “reoblación del enclave con la misma especie autóctona”.